



Michelingo frontoi estalia bete egin zuten atzo eguerdian Lasarte-Oriako 900 aiton-amonek. Bizitza luzatzen ari dela eta nagusiak sasoko daudela ikusi zen bazkarian.

## Adinekoei omenaldia

Biyak Bat elkarteak 30 urte beteko ditu etzi eta Joxe Zapirain, sortzaileetako bat, omendu du.

Adineko 900 herritar bildu ziren atzo eguerdian Michelingo frontoi estalian urtero bezala Udalak eskaintzen dien omenaldi eta bazkarian parte hartzeko. Giro bikaina izan zen, sasoko daudela eta apetitu ona dutela erakutsi zuten aiton emonek. Aurten urte

berezia da, Biyak Bat elkarteak 30 urte beteko bait ditu etzi eta bazkideentzat merienda izango da arratsaldean. Urteurrenean, Joxe Zapirain, beste herritar batzuekin batera Zaharren Etxea sortzeko lanean nabarmendu zena omendu eta eskerrak eman zioten. •



Joxe Zapirainek Biyak Bat sortzeko egindako lanarengatik opari bat jaso zuen.

## Guarana taldekoak Lasarte-Orian

Guarana rock taldeko kideek kontzertua eskaini zuten larunbat gauean Andatza plazan. Ordu bete eta laurdeneko emanaldian bere abestien errepaso egin zuten. Ikusleei oro har motza egin zitzaizkien kontzertua, baina gozatu zuten Alikanteko taldearen abestiekin. Behin ekitaldia bukatu eta gero Lasarteko tabernetan ibili ziren Guaranako partaideak bertako giroa dastatzen. •



## UDAZKEN FESTA ■ 2

Udazkenari ongi etorria eman zioten aurreko ostiral iluntzean Zabaleta auzoan

## IRTEERA ■ 6

Iruña-Veleian eta Gasteizko katedralean izan dira Arrieskalleta elkarteak



RPS 25/06

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziazioa 12 hilabete arte



Deitu gure zerbitzua ezagutzeko  
**943 366 377**

Ola Kalea, 10  
Lasarte-Oria 20160 Gipuzkoa  
[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)



# Erleak eta sardinak Zabaletako Udazken Festako protagonistak

TXINTXARRI

Udazken festa ospatu zuten larunbatean Zabaleta auzoan. Urtero bezala, urriaren hasieran umeentzako ekitaldiaren bat eta sardina jatea izaten da udazkenari ongi etorria emanez. Aurten bideo emanaldi didaktikoa antolatu dute.

Julian Urkiola erlazainak erleei buruzko hainbat berezitasun jakinarazi zituen bere hitzaldian, nolakoak diren, zein garrantzitsuak eta zer egiten duten, bai erlauntzaren barruan eta baita naturan.

Gipuzkoako erlazainen lehendakari den Julian Urkiolak nabarmendu zuen erleek ez dutela soilik jateko ezitia sortzen, sendagai moduan erabiltzeko hainbat produktu ere bai, ezitia bera, argizaria, propoleoa, polena, opitozina (ziztada edo pozoia) eta jalea erreal.

Beste bideo baten bidez, erleen eta gizakien ikusmenari buruzko bitxikeriak eta zenbait xehetasun jakinarazi zituen. Izan ere, erlauntzaren barruan ilunpetan ikusteko gai dira erleak. Eta azkenik umeentzako, erle eta panpin baten arteko istorioa eskaini zuen.

Zabaleta auzora erleren bat eramateko asmoa zuen Julian Urkiolak, baina giro



Opariz betetako bonbak jaurti ziren Udazken Festaren hasieran. Gero erleetaz aritu ziren eta sardinak jan.

txarra egin zuenez ez zuen eramaterik izan. Giro onarekin erle gehienak loreetan lanean izaten dira eta orduan, gutxi daudenean errazago da erleren bat hartu eta garraiatzeko.

Bestalde, umeentzako opariz betetako bonbak jaurti ziren emanaldiaren aurretik eta gauean giro bikaina izan zeneta ondo pasa zuten auzo-koek sardina janean. •



Julian Urkiola erlezainak parte hartu zuen Zabaletako Udazken Festan.

IPUIN-KONTAKETAK

## Irakurzaletasuna bultzatzeko ekimen bereziak haur liburutegian

Urtero egiten den bezala irakurzaletasuna bultzatzeko ekimen bereziak antolatu dituzte haur liburutegian, *Ipuinaren ordua* eta *Ipuin bat irakurriko dugu?*

Urriatik abendura antolatu diren saioetan Koruko Zurutuza, Pello Añorga eta Beatriz Egizabal ipuin-kontalariak izango dira haur liburutegian.

Honela, Koruko Zurutzak *Ipuin bat irakurriko dugu?* hartuko du bere gain eta urriaren 8, 15, 22 eta 29 eta azaroaren 5, 12, 19 eta 26an egongo da haurrei ipuinak irakurtzen; Pello Añorgak, aldez, 4 eta 5 urtekoentzako ipuinak kontatuko ditu urriaren 7 eta 29ean, azaroaren 3an eta abenduaren 3 eta 17an; eta Beatriz Egizabalek 6, 7 eta 8 urteko haurrei zuzendutako saioak egingo ditu azaroaren 11 eta 25ean eta abenduaren 10ean.

Saio guztiak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira, liburutegiko arduradunek jakin arazi dutenez.

Honetaz gain, ipuin irakurketa orduan zehar haur liburutegia irekitzeko egongo dela ere aipatu dute, ez ordea *Ipuinaren ordua* saioa dagoen egunetan. Izan ere, saio horietan ezingo baita ordua hasi eta gero haur liburutegian sartu, ezta beste aktibitatek jarraitu ere. •

## Ostadarreko Futbol Eskolak ekin dio denboraldi berriari

Asteazkenean eman zioten hasiera Ostadar Futbol Eskolako arduradunek denboraldi berriari. Aurten zortzi eta hamar urte bitarteko hirurogei eta hamar futbolari inguru arituko dira futboleantrebaten, asteazkenetan, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Eskolako arduradunen hitzetan, "esfortzu bat egin dugu aurtengo denboraldiari begira. Izan ere, eskaera eskaintza baino handiagoa zen eta haur batzuk kanpoan ez uztearren denak onartu ditugu".

### Harrera ona

Ostadar Kirol Fundazioak iaz jarri zuen Eskola martxan eta oso harrera ona izan zuen haurren artean. "Zortzi

eta hamar urte bitarteko haur asko nahi du futboleantrebatean jokatu eta Eskolak aukera bat eskaini die. Futbol Eskoletako taldeek ezin dute lehiatu, hala eta guztiz ere, urtean zehar topaketaren bat antolatuko dugu eskola desberdinen artean, haurrak elkar ezagutu dezaten", diote eskolako arduradunek.

Futbol Eskolaren helburu nagusia "haurrak kirolaren bitartez ondo pasa dezaten lortzea da". Arduradunek adierazi dutenez, "haurrak futboleantrebateaz gain, edozein kirola egiteko goputza berotze eta luzatze-eraketak ezinbestekoak direla erakusten diegu, nahiz eta hau ez izan beraien gustukoa". •



# Bi antzezlan antzerki denboraldi hasieran

- Usurbilgo Txerriki taldeak Lider Berria aurkeztu zuen sagardotegi Kalean.
- Azpeitiako Lakrikun taldeak Greban Gaude lan barregarria eskaini zuen Jalgin.

Jon ALTUNA

Jalgi benetako Antzokia izan zen aurreko ostiralean eta bata bestearen atzetik bi antzeslan ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek. Batetik Usurbilgo Txerriki Antzerki taldeak Lider Berria antzezlan eskaini zuen Sagardotegi kalean eta ondoren Azpeitiako Lakrikun taldeak Greban Gaude ikuskizuna Jalgi Kafe Antzokian.

Lasarte-Oriako Landaberri Antzerki Eskolak 2008-2009 ikasturtea hasi du eta hasteko ostiralean antzerki emanaldi bat antolatu zuen. Landaberri eta Usurbilgo Txerriki Antzerki taldeek hareman ona dutenez azken hauek kalean antzesteko prest duten Lider Berria lana eskaini zuten Sagardotegi kalean arratsaldeko 8etatik aurrera. Bi taldeetako partaideen arteko harreman estua gero ere nabaritu zen elkarrekin Arrieskalleta elkartearen egin zuten afarian. Bertan Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak aritu ziren eta giro bikaina izan zen antzerkilarien artean.

Usurbilgo Txerriki taldearen izaera bera da azpimarragarria. Adin guztietako usurbildarrek osatzen dute talde herrikoa eta amateurra haur, gazte, heldu eta adinekoek: beraien borondate eta lan handiari esker, une honetan hiru lan dituzte prest eta



Greban jarri diren hiru garbitzaileen ordu eta erdiko elkarrizketan, euren bizitzetako hainbat pasarte barregarrietaz gozatzeko aukera izan zen.

datorren hilabeterako antzokietan eskaintzeko beste bat prestatzen ari dira.

Aurretik birritan egina zuten Lider Berria lana eta ikusten egon ziren lasarteoriarek aipatu zuten ez bazen ere, ikuskizun barregarria izan zela eta momentu oso dibertigarriak izan ziren hogeit bat lagunek osatzen duen Txerriki taldearen ordu beteko emanaldian.

Ondoren Azpeitiko Lakrikun taldeak Greban Gaude lana eskaini zuen. Hiru garbitzaileen orduterdiko elkarrizketa atsegina eta barregarria

eskaini zuten. Gaur egungo edozein emakumek bizi ditzaken hainbat arazo, egoera eta gertaera bitxi jorratu zituzten Jalgi Kafe Antzokian.

Ikusleek barre asko egin zuten Idoia Uranga, Gurutze Eizmendi eta Alaitz Sarasolak kontatutako maitasun, sexu eta beste hainbat istorioekin.

2004tik ari dira lan hau eskaintzen eta talde amateur bera bada ere hiru neskek erakutsi zuten esperientzia handia dutela antzerkian. Lan honek duen berezitasunetako bat da hiru aktoreek hizkuntza herrikoiadarabiltela eta hika hitzegiten dutela. •



Txerriki taldean adin guztietako usurbildarrak ari dira antzerkia egiten.

## Okendo Zinema Taldeak proiektzioekin ostegunean hasiko da

Okendo Zinema Taldeko kideek uztailean eskaini zuten azken filma Okendoko frontoian eta ondoren etenaldi bat egin dute. Baina, aste honetan ekingo diote udazkeneko programazioari. Ostegunean, urriaren 9an, "Talk to me" ikusi ahal izango duzue eta hilak 23an, "Caramel" filma. Azaroko egitaraua ere aurreratu digute: "Persepolis", azaroaren 13an eta "Kitchen stories" 27an.

Momentuz, hilean bi emanaldi eskaintzen jarraituko dute, bigarren eta laugarren asteko ostegunetan, gaueko 22:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxean. "Udalarekin egindako hitzarmenak urte beteko epea jasotzen du. Herritarren

erantzunaren arabera ostegunetako zine emanaldiek jarraipena izango dute, edo ez". Hau dela eta, Okendo Zinema Taldeko lagunek lasarteoriatar guztiak animatzen dituzte ostegunetako proiektzioetara.

### Webgunea

Okendoko Z.T.ak duen webgunean, [www.okendozine-ma.org](http://www.okendozine-ma.org), taldearen historia, karteldegia, foroa eta abar, aurkitu ahal izango duzue. Zine-klubekoek herritar orori ireki nahi dizkiete ateak. Horregatik, webgunean zuten ideiak, iruzkinak, proposamenak etab, jasotzeko prest daude. "Orain, bide berri honetan zuten laguntza behar dugu". •



Okendo Z.T.k uztailean eskaini zuen Okendoko frontoiko azken filma, "Viaje a Darjeeling".

# Adinekoak sasoian daude

■ 900 lagun elkartu ziren Michelingo frontoian egin zen bazkarian. ■ 30 urte bete dira, Biyak Bat elkartearen ireki zenetik.

Lasarte-Orian bizitza luzatzen ari dela ikusi zen atzo adinekoiekin zitaen omenaldian. 900 lagun elkartu ziren Michelingo frontoian egin zen bazkarian eta apertu ona dutea ikusi zen. Gainera batzuek kampaian geratu ziren lekuri ez zegoelako. Beraz, nagusiek bazkatzeko eta festarako gogorik galdū ez dūterenez, sasolko daudela esan daitelike. 30 urte beteiko ditū etzi, asteazkenean. Biyak Bat elkarteak eta bazkideak gombidatuta daude arratsaldeko betan hasiko den merienda. Baina omenaldia eta uteroko bazkaria egiten lehenago hasi ziren zahar etxearen bulitzaleak. Horien artean da Joxe Zapiain elkarteak aurtien omendu duen herritarra.

**JAN AITUNA**  
onean izan ziren eta sasolko daudela erakutsi zuten. Hastien pitakatzeko besteak beste esparitago eta pipar bereak jan zituzten, ondoren Michelingo frontoian egin zen arari bera, gero, birbilika eta azkenik postea jan zuten. Bazkaria joandako lasar-bildū ziren 900 lagunak giro

**Joxe Zapiain, Ciriaco Jimenez eta Joxe Aizpuruak 1970 inguruan penintsatu zuten Lasarte-Orian gero eta ugariago ziren zaharrentzat lokal egoki bat irekitzeko zerbat egin behar zela.**

## Joxe Zapiain, Zahar-etxearen sortzaileari omenaldi beroa



lokian 1978an ireki bazen ere zortzi urte lehenago heldu zioten Zaharren etxea irekitzeko asmoari. Joxe Zapiainek 76 urte ditu eta sortzez Ahongarra da, baina lora estua izan du beti Lasarte-Oriaren. 14 urte zituenetik bertan egin du lan eta 1961ean ezkonduan goiti zen bizitzera. GUCAN kolariak eta sanaginik egiten hasi zen lehen. Bianchiren lantegi ezberdinetan aritu zen eta Donostia enpresa batean ere bai. 1956an Michelinen hasi zen arte.

### 1970etik lasan

1970 inguruan sortu zitzaizen Zaharren Etxea irekitzeko asmoa. "Micheliner etorrialde honen bulitzatzailea, askotan errentat dute horrela da asko-asko ez gure bigarren etxea". Eskerak eman zitzaion eginko dako lan guztia irengatik eta opari bat eman Zaharren etxearen zirenen kabo antean. Biyak bat orain dagoen



Bazkarian izan ziren lasarrean zaharrenek. Villajos Gámez eta María Dolores Torbiok Ana Urchueguren bazkaldū zuten.

teoriar zaharrenek, 90 urteko Villajos Gámez eta 93 urteko María Dolores Torbiok Ana Urchueguren ondoren bazkaldū zuten. Merve Galdos Biyak Bat elkarteko presidentea eta Lourdes Acebedo zinegotziarenekin batera herrirko apaizak ere maitatuban izan ziren.

### Merienda asteazkenean

Dena den, adinekoen egun haunderik geroak ez zuden, eta beste hainbat mahai 900 lagun haru ahal izateko. Bizitza oro har gero eta luzeagoa da eta hori argi ikusten da urtero diren ekitaldietan.



Biyak Bat bazkaldū zuten Joxe Zapiain, Florentino Mendon, lehen presidentek, eman zion obsequoaren eta gobernadorearen aurrean.

Jimenez-ek eta Joxe Aizpuruak penintsatu zuten hasten zuten elkarte bat sortzeko zerbait egin behar zuela. "Ustieneko eskola hutsik geratu zirenen aukera izan zuten, 80500 lagunentzat bazkaria antolatu, baina hau ere eskolara pasa zen, han 200ekin hasi eta aurrerago 400 bat lagun biltzen ziren. Atzo Michelinen 900 lagun elkartu ziren.

### Udalteke arzipan

1970-1974 tartean egon zen zaharren etxea Ustien-on baina etseke arki behar zituzela eta bota behar zenean Udalteke arzipa ziren. Hemen une txikien eskola hustu eta nahiko ondo egokitu zuten aurreko kasuan bezala herrirko enpresen



Elkarriko abestazaren lehen zuten eta bazkaria izan ziren atzo delatid nagusiak.

Udalaren eta herrirko bankoaren opart baina jaso zituzten. Ondotxi bat egin zitzaizen. Bikote bakoitzak, Biyak Bat elkartearen,



launtzaz. Bajina Etxe ofizial bat lortu arte ez zuten etsi eta azkenen 1978ko urrian ireki zen kale nagusikoa, hainbat zailtasun galdū eta gero. Geratiko bat jartzeko egitarasmoa bertan behar geratu zela eta aukera ikusi zuten elkarre irekitzeko eta hainbat bilaren ondoren gauzatu zen. Joxe Zapiainek kontatu diguenez, biler horietako batean esandakoa idatziz jartzeko urtean hainbat promesa jaso eta batera betetzen ez zelako. Azkenean agindutako bete zuten eta duela 30 urte zabaldu zenean, besteak beste, Argala obispoa eta Gipuzkoako gobernadorea izan ziren Zaharren etxean. Biyak Bat izena jarri zioten; alagunuen elkartearen omendu egin zuten. •



**17 bikoteren Urrezko Etxeak.** Arzakiko bikoteek opariak jaso zituzten ostegunean zaharren etxean. 17 dira: Herenegildo Arrastia-M<sup>a</sup> Kruz Usabarrena, Higino Iglecias-M<sup>a</sup> Josea Iglecias, Juan Prieto-Victoria Perez, Pedro Garcia-Mercedes Blazquez, Agustín Dovel-Mercedes Villalustre, Antonio Díez-Rosario Martín, Joaquín Zabala-Begoña Izaguirre, Jose Azpíroz-Luisa Arieta, Ignacio Murguiondo-Vilagrosa Odriozola, Jose Iglecias-Carmen Rodríguez, Isabel Hernandez-Vicente Vazquez, Martín Urtizola-Josea Escudero, Juan Marín-Ignasi Artega, Pedro Fernandez-Merche Sanz, Felipe Garcia-Frinitad Garcia, Gregorio Vígara-Candida Guzman eta Santiago del Campo-Teo Romo. •



**Dendetariko bapeltsek.** Ostegun arratsaldean banatuzten Zaharren Etxean egin diren lehiaketa ezberdinetako sariak. Mugimendu eta mahai jokor sariak ugaririk izan ziren. **Musean** txapeldunak Candido Pecharroman eta Juan Vergara izan ziren, bigarrenak Isidoro Arroyo eta Eusebio Curie; **tutean**, Nicolas Rodríguez eta Heliodoro Rojok Isidoro Arroyo eta Eusebio Curie garatu zituzten; **eskuban** Angel Rama eta Amador Mastrak Celia de Mozos eta Mari Paz Mendez irabazi zituzten; **puntuban** txapeldunak Isabel Barquilla eta Isabel Hueso izan ziren, bigarrenak, Herenegildo Arrastia eta Patsi Sorondo; **bolibolean** Herenegildo Arrastia eskuratu zuten lehenengo postua eta Sofia Gultierrezek bigarrena; **briskan** Isabel Barquilla, Isabel Hueso eta Patsi Niñok Constantino Bocos, Martín Sanz eta Mariano Martín garatu zituzten; **raibolin** Begoria Zuriga, Paz zen garailua eta bigarren postua Catalina Cercorenzatzat izan zen; **botolan** Vicente Martinek Jose Blanco garatu zuen eta **raian** ere irabazi sartuta izan zen; bigarrena Candido Pecharroman izanik; emakumeen **bolan** Anunciación Estevez izan zen garailua eta M<sup>a</sup> Luisa Arzuenezkat izan zen bigarren postua eta gizonen **bolan** Diego Roman izan zen eta bigarrena Ruben Rodríguez. Argazkian dira sariak. Erliko litro amonak, puntuko txapeldun, 86-89 urte artean dira. •



**Marrazki eta Olerki lehiaketa.** Adinekoak galarik in Extremadura elceak antolatzen duen haurren marrazki eta olerki lehiaketan. Landaberriko Asier Olmos eta Noa Carretero izan ziren irabazleak 7-9 urte artekoan eta Sasotatuzumaburuko Alicia Herandez 10-12 urte artekoan. Harek bi arloetan nabarmendu ziren, olerkian eta marrazkian eta sari berzira jaso zuten. Argazkian marrazkian edota olerkian sarritan bat jaso zuten guztiak. •

# Egun pasa Arrieskalletatik elkartetik Iruña-Veleia eta Gasteiz-era

- Arrieskalleta elkarteko 50 lagunek Arabako historia ezagutu zuten larunbateko irteeran.
- Aztarnategi arkeologikoa bisitatu zuten goizean eta Gasteizko alde zaharra arratsaldean.

## TXINTXARRI

Iruña-Veleiara egun pasa egin zuten larunbatean Arrieskalleta elkarteko 50 bat kidek. Aztarnategi arkeologikoa bisitatu zuten goizean eta Armentian bazkaldu ondoren Gasteizko alde zaharra eta Santa Maria katedrala arratsaldean. Oso ondo pasa zutela eta eguna oso arin pasa zitzaieela kontatu digute bertan izan zirenek. Ondorengo lerroetan datorrena beraietako batek bidali digun kronika da.

Arrieskalleta elkarteko bazkideak Hipodromo etorbidetik abiatu ginen larunbatean goizeko 9tan Iruña-Veleiara. Ateri, baina eguraldi freskoa zen. 10ak inguruan geldialdixo bat egin, 11etan aztarnategira iritsi eta bertan bi taldetan banatu ginen bisita gidatua egiteko.

Aztarnategi arkeologikoa Arabako hiriburutik, 10 kilometrorra dago, Villodas eta Trespuntas herrien artean, Zadorra ibaiaren bihurtune batean.

### Erromatarren bidean

Karistarrak izan ziren bertan lehenik Brontze aroan eta ondoren erromatarkuntza iristean Veleia izeneko hiri handia bilakatu zen. Astorga eta Bordele hiriak lotzen zituen bidea bertatik igarotzen zen.

Kristo ondorengo lehenengo mendean 80 bat hektarea zituen eta III. mendean, harresia egin zen.

Veleiaz ezagutzen diren azken datuak V. mendekoak dira hiria husten hasi zen garaia hartan eta inguruko herrixketan kokatu ziren ordu arte bertan bizi izan zirenak. Eta beranduago Erdi Aroan Malta ordenako zaldunak ezarri ziren bertan.

Veleian sei gune daude



Arrieskalletako taldea, Iruña-Veleiako aztarnategira iristen.

ARGAZKIA: Arantzazu ERRASTI

## Heraclio Fournier-en 140. urteurrena ospatzen dela eta katedralaren sarreran maketa bat egiten ari dira kartak erabiliz.

ikusgai. Batetik, barrakoiak, bertan 480 soldadu egon ohi ziren, gelako 10 lagun literetan. Gorputz osoko ileak kentzeko erabiltzen zituzten burdinazko pintza batzuk topatu zituzten han. Bestetik espazio publikoa, plaza, tenplua, kapitelen aztarnak... Herritar xumeen etxeko sotoak ere ikus daitezke. Etxe edo insulae horiek ez zuten komun eta sukaldetik. Ondorioz, Termopilumetan, jantoki publikoetan jaten zuten.

Errosetoidun mosaikoaren etxearen azpian euriaren urak

jasotzeko zisterna ikus daitezke. Zisternaren gainean mosaikoa duen etxe hori medikuren batena zela uste da, bertan kataratak operatzeko bisturi bat topatu baitzen.

### Euskaraz idatzitako hitzak

Pompeia Valentinararen etxea goi mailakoena dela uste da. Etxe honek ere zisterna du eta gainean mosaikoa. Albo batean Pedagogium-a dago, eskola: bertan "tablilla" batzuk agertu dira, jainkoen zerrenda, hirien izenak eta euskarazkoak izan daitezkeen

hitz batzuekin. Oraindik ikeretzen ari dira hitz horiek euskaraz idatzeita dauden ziurtatzeko.

Harresia, harri landu eta bete lanez egindakoa da. Atearen inguruko zatia dago agerian beste guztia lurpean dago ateratzeko zain. Harresiaren jiran ageri da Drako. Herensuge itxura egiten zuten mozturro batzuk jartzen zituzten haizearekin zarata ateratzen zutenak kanpotik zetozenak idatzeko.

Eusko Tren eta Euskal Trenbide sarea enpresek babestu dute Iruña-Veleia III. Milenioa proiektua. Beraien diru laguntzei esker ari dira lanean baina oraindik asko geratzen da industeko. Sarrera doan da asteartetik ostiralera 11-14 eta

16-19; larunbat, igande eta jaiegunetan goizez bakarrik zabaltzen da, 11-14. Hori bai, bisita gidatua ordaindu egin behar da.

Ordubeteko bisita da gutxi gorabehera. Eramandako zamarra eta zapiak izugarri eskertu ziren bisitan zehar, muinoan haize fina baitzebielen.

### Armentiaeta Gasteizen

13tan Armentia eta zelaian bazkaldu genuen bakoitzak etxetik eramandakoa. 15etan animatuenak oinez abiatu ziren Armentiatik Santa Maria katedral berritura eta besteak berriz autobusez. Bertatik Gasteizko alde zaharrean bueltaxka emateko aukera ederra izan genuen, 16:45ak arte, orduan Santa Maria katedralera bisita baikenuen.

Berriz ere bi taldeetan banatu eta bisitari ekin genion. Heraclio Fournier Gasteizko karta fabrikaren 140. urteurrena ospatzen dela eta sarreran katedralaren beraren maketa bat egiten ari dira kartak erabiliz. Hasteko eta kokatzen joateko bideotxo bat jarri ziguten eta ondoren kasuak jarri eta obretan zehar bisita gidatua egin genuen.

Zahar berritzearen berri eman ziguten eta eraikina nola eraiki zen eta zein arazo izan zituzten ikusteko balio izan diela adierazi ziguten. Katedral barruan ezin dira argazkiak atera, baina hainbat informazio eskura daiteke [catedralvitoria.com](http://catedralvitoria.com) helbide elektronikoan. Zahar berritze proiektua azaltzen da web orrialde honetan.

Bisita honek ere ordubeteko iraupena izan zuen. 19tan autobusera hurbildu, bertan mokadua egin eta etxera bueltan abiatu ginen, 20:45 inguruan iritsi ginelarik Lasarte-Oriara. •

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Egunero

### Erakusketa

EUSKARAREN MARATOIAK. Aurreko edizioetako argazkiak eta aurtengo edizioko materiala ikusgai Jalgin, egun osoan.



## Ostirala, 10

### Hitzaldia

RAFA DIEZek, LABeko idazkari ohiak, hitzaldia eskainiko du Xirimiri Elkartearen, iluntzeko 19:00etatik aurrera.

### Magia ikuskizuna

RAFAFA MAGOAREN ekitaldia Naiban tabernan, 23:00etan. GAZTELANIAZ

## Igande, 12

### Zinea

AHATATXO ITSUSIA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.



## Ostegunetako zinea berriro martxan

TALK TO ME filma izango da oraingoan ikusgai Okendo Zinema Taldearen eskutik. Filma honetan Ralph Waldo "Petey" Greenen benetazko istorio itzela biltzen du. Iruzurgile-ohi ausarta hura, han hemenka aritu zen, 60eko hamarkadan Washington DC hirian irratiko ikono bilakatu arte. Garaiko soul musika arinak eta gizarte-kontzientziaren eztaundak susperturik, Peteyk eztabaida bultzatu zuen jabe zuriak zituen irratian.

OSTRIALA 9, 22:00ETAN  
KULTURETXEAN  
SARRERA, 4 EURO

## Asteazkena, 15

### Zinea

SIETE MESAS DE BILLAR FRANCES filma ikusgai Kutxa Zinezko bizitza egitasmoaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

### Hitzaldia

AITAREN PAPERARI BURUZ arituko da Pilar Seminario psikologoa. Orik 7ra urteko umeen gurasoei zuzendua. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.

## Osteguna, 16

### Hitzaldia

ETXE BARRUKO BORTIZKERIARI BURUZ jardungo da Xabier Arrazola, psikologo klinikoa. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etatik aurrera. GAZTELANIAZ.

## Ostirala, 17

### Jam sesioa

DINBI DANBA talde izango da gonbidatua hilabetero antolatzen den Jam sesiora. Bertan jazz-a eta blues-a jotzeko eta entzuteko aukera egongo da. Jalgi kafe-antzekian, 22:30ean.

## EUSKARAREN 7. MARATOIA

Animatu eta hartu parte!

Sartu  
[www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com)

web orrialdean eta eman zure izena!

Kamisetak salgai  
Ttakunen eta Jalgin.

Izena emateko edo informazio gehiago:

Ttakunen  
(Geltoki kalea 4)  
edo 943 371448  
telefonoan.



## Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara  
eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Eguberrietako loteria

Oztanbide auzo-elkarteak eguberrietako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du: 43.607 zenbakia. Hiru eurotako partizipazioak (loteria: 2,5 eta emaria 0,5) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburun) eta COVIRAN supermerkatuan (Oztarán emparantzan) erosi ahal zango dituzue. Edozein zalantza argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu dezakezue.

### Oriatarren eskerrak

Oriako bizilagunen bazkariko antolatzaileek Pilar Catalina sopranoari, Amaia Dorronso-ro organistari, Aburuza autozerbitzuari, Urnietako Edurne lorendari, Solano Trikitilariari, Billabonako Eskola taldeari, Txitxardin Beltxa jatetxe eta honen sukaldari eta zerbitzaileei "prestatu zuten bazkari gozoagatik", Diario Vasco, Txintxarri eta

Noticias de Gipuzkoa komunikabideei eta Ramon Uribe-txeberria apaizari eskerrak eman nahi dizkie bere lagun-tzarengatik.

### Katxalin Elkarteko loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko dohaina Katxalin elkarterako izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBn egin dezakete, Ganbo kalean.

### Txokotako argazkiak

Udaran, uztaila eta abuztuan, Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Udako Txokotan egondako haurren argazkiak biltzen dituzten CDak urriaren 6tik aurrera eskuratu ahal izango dira Amaraun ludote-

kan (Ola kalea 1). Arratsaldeko: 17:00etatik 20:00etara bitartean.

### Aterpearen eskerrak

Faktory azoka antolatzen lagundu zuten guztiei esker-erak eman nahi die Aterpeak: Lasarte-Oriako udalari bere disposizioagatik eta finantza-zioagatik: Landaberi ikastolari megafonia uzteagatik; Rural Kutxari logistikagatik; GATC-ri, Gorkaren bidez antolaketa kordinatu zuelako; Zumaiaiko Zelairi bere talasoterapiari bi egonaldi eskaini zizkigulako guk bertaratu arteen zozketatu ahal izateko; Jon Lasa eta bere ikasleei, musu truk festa girotu zigutelako; eta nola ez, bertara hurbildu ziren guztiei. Guztiei, mila esker!

### Eguberrietako loteria

Oztanbide auzo-elkarteak eguberrietako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du: 43.607 zenbakia. Hiru euro-

tako partizipazioak (loteria: 2,5 euro eta emaria 0,5 euro) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburun) eta Coviran supermerkatuan (Oztarán emparantzan) erosi ahal zango dituzue. Edozein zalantza argitzeko, 627818225 (Joseba) edo 661068301 (Pili) telefonoetara deitu dezakezue.

### Xumela korua

Ikasturtearekin batera, hasita daude Xumela koruko kideak biltzen. Bilkura eguna, pasa berri den ikasturtean bezala astelehenero arratsaldeko 19:30ean izango da Landaberri BHIko egoitzan. Interesa duenak agertzea besterik ez du.

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
Geltoki kalea 4, behe

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Ane Arteaga Zinema zuzendari-laguntzaile eta produkzio-buru lasarteoriarra

# “Ez genuen gezurrik esaten, baina ez genuen egia osoa esaten ere”

Nerea EIZAGIRRE

Ane Arteaga lasarteoriarra Zinemaldiko sail ofizialean lehiatu den *Tiro en la cabeza* filmeko lan taldean egon da. Orain ere beste grabaketa batean dago murgilduta, baina tarte bat egin eta gurekin egon da solasean.

## Tiro en la Cabeza filmari zein lan egin duzu?

Produkzio burua izan naiz, baina denak polibalianteak ginen. Hori zen txistea. Hamar pertsona ginen dena egiteko, ekipo minimoarekin ibili gara eta denek denetarik egin dugu. Baina ni produkzio burua izan naiz, hala ateratzen naiz tituluetan.

## Antolaketa guztia zure gain egon da, orduan?

Bai. Grabatzeko lekua bilatu eta materiala eta errodaia aurrera eramateko azpiegitura antolatu. Gainera erreditorik ez zegoen eta aktore protagonistak arte zuzendaria zen. Beraz, denak ibili gara errejidore lanetan.

## Noiz jakin zenuen pelikularen berri?

Produkzio burua etorri zitzaidan, nire jefa zena, abenduko zubian. Jaimek proiektu berri zeukala esan zidan, "peli punki bat, zuretzat, Donostian, eta Arretxe izango da protagonista". Niri kriston ilusioa egin zidan, baina zer zen esan zidanean ez zitzaidan hainbeste gustatu, "betiko gaia" pentsatu nuen. Ni aspertuta nago politikako pelikulak egiteaz, espezializatuta nago eta nazkatuta.

Gero dena azkar izan zen, abenduaren 1ean gertatu zen atentatua eta 8an nik banekien, Jaimek hiru egunetan idatzi zuen gidoia, pasa zidana, sei aste egon ginen dena prestatzen eta bi errodutan.

## Zaila izan da lekuak aurkitzea edo baimenak lortzea?

Ez, pelikula nahiko berezia da. Dena kanpotik grabatuta dagoenez ez genituen espazio handiak behar. Bilatzen genuena leiho handiak eta abatibleak izatea eta distantzia egokiak izatea zen. Adibidez, lehenengo pisu bat parean errodatzeko beste leku bat daukana.

Etxeak topatzeko bi talde egin genituen Jon, aktore eta dekoratzailea, nere laguntzailearekin eta ni Jaimearekin.

Donostiako kaleetatik ibiltzen ginen. "Begira etxe hau", joan, tinbrea jo eta pelikula bat grabatzen ari ginela esan. Horrela lortu genuen agertzen diren bi etxeak. Gero festarena agroturismo bat da eta Hondarribian topatu genuen. Zortea eduki genuen horrekin. Guztia zertan ari ginen esan gabe noski.

## Gaiarena oztupo izan zitekeen, ez da?

Jaimearen erabakia izan zen ez esatea. Dokumental moduan egin nahi zuen dena. Beraz, ezin zen esan Jon "ETA kidea" bat zela. Guk jendeari esan genion pelikula "Jon en las calles" izango zela eta ez *Tiroa buruan*. Dokumental esperimental bat egiten ari ginela esan genuen, piska bat ararara, elkarrizketarik gabekoa, aktoreak ez zirela profesionalak, kanpotik errodatu behar genuela teleobjetiboekin... Ez genuen gezurrik esaten, baina ez genuen egia osoa esaten ere.

## Errodaia bi asteetan egin zenuten eta erdian Goya saria eman zizueten La Soledad filmarengatik...

Bai, eromena izan zen. Gu klandestinidadean grabatzen ari ginen. Ostiral batean hasi genuen errodaia, larunbatean errodatu genuen eta Jaime Madrileru joan zen larunbat gau horretan Goya sariak izan baitziren.

Eta bat batean astelehenean Jaime ospetsua zen. Egunkari guztietan ateratzen zen. Sekulako sorpresa izan zen. Elkarrizketa batean irakurri dut errodaia atzeratu genuela baina ez zen hala izan. Osteko errodaia eromena izan zen Jaimek bazkaltzeko garaia elkarrizketetan pasatzen zuen. Beretzat kaotiko xamarra izan zen. Guk idazkari lanak egin genituen "ez orain ezin du grabatzen ari garelako...". Gainera, Jaime portatilaekin ibiltzen zen eta plano batetik besterako tartean elkarrizketak egiten zituen Internet bitartez.

## Pozik egongo zineten orduan?

Bai, denak flipatuak. Jaime ospetsua egin zen, baita bere lana ere. Gero gainera, aluzinatuta egin nuen zinemaldiko sekzio ofizialean *Tiro en la cabeza* sartu zela ikusteak. Horrekin bai poztu ginela. Nire ustez Donostian estreinatzeko pelikula zen eta Zinemaldia arriskatu da beraz.



Ane Arteaga, tiroa buruan filmari aritu diren lagun batzuekin. Parean Jon Arretxe protagonista.

ARGAZKIA: Inigo ROYO

## Zinemaldian sari txiki bat izan du, Fipresci saria.

Bai, txikia da eta ez da oso ospetsua baina oso ona da sari hori Europako estreinuak bermatzen dituelako. Han flipatu egin dute, noski. Nik uste dut Frantziaren hemen baino hobeto hartuko dutela filma. Kontuan hartu behar da hemen gaiak eragin handia sortzen duela jendearengan agian European desberdina da.

## Baina kritika asko eduki ditu pelikulak...

Bai, baina onak eta txarrak. Gainera, niri gustatzen zaidan gauza bat da, *El Paisen* adibidez hiru elkarrizketa egin dizkiote eta batzuk oso kritika ona egin dute eta beste batzuei ez zaie gustatu, *El Mundon* ere edizio digitalean oso gaizki jarri zuten baina paperezkoan kritika ona izan zuen. Komunikabide berdinean iritzi ezberdinak egon dira eta niri hori gustatzen zait.

## Jendeari ararara egin zaio elkarrizketarik ez egotea, plano urrunekin...

Estreinatuta zen egunean ni han egon nintzen eta jendea kanpora atera zen eta hori ulertu egin dut. Nire lagun batzuei ez zaie batere gustatu, oso gogorra da ikusteko. Baina beste alde batetik iruditzen zait ondo dagoela pelikula bereziak egiteko aukera egotea, betiko pelikulen ondoan horrelako gauzak egotea. Gero, beste alde batetik, politikariburuz izateaz nazkatuta nago. Zinemaldian bi pelikula izan

ditut eta biak gai politikoarekin. Orain beste bat prestatzen ari naiz eta politikarekin zerikusia dauka baita ere. Komedia bat egin nahi dut, mesedez!

## Gainera estreinua baino bi egun lehenago atentatua egon zen.

Bai, Jaimek saria eman ziotenean kontaktu zigan komunikabideetatik asko presionatu zutela. Iritzi bat emateko eskatzen zioten, atentatua kondenatzeko eta abar. Bera hor nahiko firme mantendu da esanez kondenatzeak ez duela ezer konpontzen eta ez du kondenatu. Presio eta elkarrizketa gogorak eduki ditu horregatik. Pelikula oso ondo egin du, zer esana eman du baina, batzuei gustatu zaie beste batzuei gaitzesgarria iruditu zaie baina, zoritxarrez, iruditzen zait ez dela ezer aldatuko. Gogoratzen naiz *La pelota vasca* egon zenean ere istiluak egon zirena, baina gero ez zen ezer aldatu.

## Zein desberdintasun nabaritu dituzu La Soledad egiten eta hau egiten?

Hau errodaia punkia izan da. Pelikula berezia da, oso esperimentala, jende gutxiarekin. Dokumental eran grabatuta dago eta denek denetarik egin behar genuen, "todoterrenoak" ginen.

Niri gogorra egin zitzaidan, asko sufritu nuen. Nire ardurak edukitzeaz gain, jantziena ere banuen horretarako ez zegoelako inor. Nire furgonetan dena neukan, atrezzoak, aropak...

Desberdintasun handia dago bestearekin. Azken finean jende eta diru gutxiarekin egin da, biziraupena izan da. Hamabost egunetako errodaia izan zen, errodaia normal batek zazpi bat aste irauten ditu gutxienez eta egoera hobeetan.

Oso ondo pasa genuela ere esan behar dut, taldea kriston izan zen. Iparraldera grabatzen joan ginenean oso ondo pasa genuen. Han koproduktore frantses bat zegoen eta berak antolatzen zuen orduan gu erdi oporretan joan ginen.

## Aktore ezezagunak izan dira, gainera arteko zuzendaria aktore nagusiaren lanetan...

Bai, Jon Arretxe erotuta ibili da. Gainera Jon atxilotuta egin zen. Oso terapeutikoa izan da. Flipatu egin genuen kontaktu zizkigun gauzakin, oso gogorra izan zen. Gainera, bat-batean Jaimek idazten dit mezu bat *El Paisen* Joni egindako elkarrizketa irakurtzeko. Irakurri eta hori dena kontatzen zuen, gero Garan ere atera zen.

## Orain zertan ari zara?

Orain Xabi Elortegiren pelikula batean nago lanean. Xabik *Balbemendi*, *Goenkale*, *Hasi-berriak* telebistako saio asko zuzendu ditu eta Anjel Lertxundiren liburu bat egiten ari gara *Zorion Perfektua*.

Hau ez da Jaimearena bezain gogorra baina atentatu bat ikusten duen neska baten istorioa da, biktimen ingurukoa. Gainera euskaraz da eta hori gustoko dut. •